



Yin eta yang, frantsesa eta euskara, alde femeninoa eta maskulinoa, txarra eta ona... Bikoiztasunean oinarritu ordu bateko bidaia musikala proposatzen du Xano Halsouetek.

Planeten artean musikari

Nora Arbelbide Baiona

Baiona Ttipiko Kalostrape ostatu zolaraino joan eta, hor dau de bi kutxa beltz. Bata zutik eta bestea etzana. Kanpotik, besterik gabe, bi kutxa arruntentzura dute. Barnera sartu eta hor, bakoitzean entzungailuak. Entzungailuak soinean eman, eta orduan hasten da bidaia. Xano Halsouetek muntatu belarrientzako erakusketak *Planeta Bi la nature n'est pas humaine* (Natura ez da humanoa) izena du, eta abenduaren 16a arte egonen da hor. Oren bat irauten duen bidaia musikala. Disko bat baino zerbait bereziago. Bidaia nonbait fisikoa ere bada. Ez munduan gaindi doazen horietako bat, baina bai intimitatean barna sartzera gonbidatzen duenetako bat, kutxako giroak lagundurik.

Barne munduko bi planetaren arteko joan-jinak irudikatzen ditu entzungailuetatik entzun daitekeen musikak. Halsouetek berak idatziak eta kantatuak, batzuk euskaraz. Besteak frantsesez; horiek, erranak, kanturik gabe. Gibeletan musikan, batzuetan gitarra, besteetan soinu bereziagoak. Paxkal Indorekin hasia, Pascal Garmendiarekin segitua eta

azken nahasketa Laurentx Etxemendik eginak. Kutxak berak, Alain Sistiaga artistak egin dizkio.

Kontatzen duen istorioa planeta batek abiatzen den pertsona batekin hasten da. Beste planeta batera doa eta hor, beste pertsona batek eskatzen dio bidaiatzeko tresna bere planetara joateko. Planeta berri horretan ezberdintasun guztiez ohartzen da, eta horrek eragin sufrimenduz. Bukaeran etxera itzultzen da, eta ikusi duena analizatzen hasten da.

Sufrimendua abiapuntu

Sufrimendu, amodio, poz, ez-ulertze... Egunero bizi esperientzia pertsonalaren lekukotasuna da sormena, autoerreturatu bat. «Bikoiztasunaz mintzo da. Bi hizkuntza, bi kultura nahasten dira, borrokatzen ere bai pixka bat. Bada ere bai alde femeninoa, alde maskulinoa, negatiboa, positiboa, yin eta yang...», azaldu du Xano Halsouetek berak. Bi hizkuntza, erran nahi baitu frantsesa eta euskara. On eta txar, txar eta on: «Bada txar pixka bat onean eta on pixka bat txarrean». Kantuetan ageri den nabardura. Kantu bat etsigarri bada, beti umore tindua gehitzen dio. «Alde positiboa xerka-tu dut beti, instintiboki. Bizitzen segitze-

ko, aitzina joateko». Instintiboki, baina lan handia eginez. Bi urteko lana. «Sufrimendua izan dut abiapuntu. Euskal munduan lan egiten nuelarik, euskaraz bizi nintzen, baina ohartzin nintzen alde frantsesa eskas nuela. Alderantziz, eskola frantsesean ibili naiz, eta ene alde euskalduna eskas nuen orduan. Horregatik hasi nintzen punk musika egiten. Euskaraz oihukatuz erraten nituen erran beharrekoak».

Urruñakoa (Lapurdi) sortzez, eta beti Urruñan bizi, aita hizkuntza du euskara Halsouetek. Ama hizkuntza frantsesa: «Abiapuntua hor ere ikusten da. Alde batetik nahi dut euskalduna izan. Euskaraz bizi. Baina sortzez frantses alde ere badut. Ezin dut bizi bakarrik molde batean, bestea gabe. Horretaz konturatu naiz. Eta hori adierazten entseatu naiz. Borroka intimo hori». Barne-barnera joan, eta hor gaindi ikusia musika bihurtuz. «Zaila izan da. Baina ohartu naiz ere anitzek bizi zutela arazo bera». Baina iduriz orain atzemana du oreka. «Onartzen ditut bi aldeak». Harmonian bizi da orain. Horren lekuko, abenduan aterako duen *Xano* diskoa, soinu eta kantu berriekin, «planeta bakarrekoa; bi aldeekin egina».



Xano Halsouet artista, jarri kutxetako batean; entzungailuekin entzuten da hark egin bidaia musikala. Oren bat irauten du. GAIZKAIROZ



Maratila

Ane Muñoz



Akusazioa

Etorri aurretik abisatu zidaten, bai, kontuz ibiltzeko, zer edo zer lapurtuko zidatela hemen, Kuban, turistekiko iruzurrak eguneroko ogia direla eta abar. Txorakeriak.

Badaezpada ere, logelako kutxa gotorra erabiltzeko aukerari ez nion ezetz esan. Zer sartuko, baina? Pasaporte eta diruarekin, nahikoa. A, desodorantea ere sartu nuen, Endocil ez da eta nolanahikoa. Buah, ze txorua.

Lehenegoa berriz, pareoaren —zapi handi arrunt bat— falta sumatu nuen logelan. «Ikusten?» Arrazoi zuten ba hemen zer edo zer lapurtuko zidatela esan zidatenek. Gosaltzera sutan jaitsi nintzen, garbitzaileak lapurtu egin zidala konbentzitu. «Pareo zitrin hori lapurtu badit, gainontzekoa erraz desagertuko zait laster», paranoia batean sartuta, ni neu. Absurdua.

Zuzenean akusatu gabe nola kontatu pentsatu ondoren, joan nintzen garbitzailearen bila. Al-boko logelan zegoen. Hurbildu eta saiatu nintzen, modu onean, desagertzen absurdu hura argitzen. «Se lo dejé en la baranda», jakinik normalean balkoian uzten nuela. Oraindik ere gezurretan zebilela susmatuz, eskerrak eman eta badaezpada ere joan nintzen «barandara». Eta bai, hantxe zegoen pareoa, auskalo nondik eroria, goxo-goxo, landare exotiko eta balkoi artean galduta, bustita, trapu zahar baten antzera.

Korrika, garbitzaileari salbatzailea balitz bezala eskua eman eta ondoren propina ederra utzi nion mesanotxian.

Bi egun geroago, hor zegoen propina; emakumeak nonbait nire akusazio kamuflatua ulertuta, ez zuen nigandik deus nahi. Kontzientzia ezin lasaitu, hurrengo goizean beste txanpon pila utzi nion. Deus ez. Laugarren eguna da, gero eta txanpon gehiago mesanotxian... Noiz arte zigorra?

Asteartea
2009ko abenduaren 1a

berria

